EMAKUME ABESBATZARAKO ETA
ORGANORAKO MUSIKA PROPOSAMENA

ARIMA SAKRA

VOCALIA TALDEA

ARIMA SAKRA

Musika proposamena

Garai eta estilo ezberdinetako eliza eta katedralak oroimenetarako tokiak izan dira beti, eta, neurri batean, magikoak, fede- eta bilketa-lekuak, ospakizun- eta jai-lekuak. Gurtzarako eraikin hauek erakusten dute gizakiak Jainkoarengana nola hurbildu nahi izan duen. Elizak, euren nabe handi eta garaiekin, kolore anitzeko beirateek eraldatutako argiekin eta ilunpe iraunkorreko harrizko espazio soilekin inspirazio-iturri izan dira esparru guztietako artista eta sortzaileentzat.

Vocalia Taldearen musika proposamen berriak, ARIMA SAKRAk, emakumeen koru eta organorako hiru obra erlijioso zoragarri lotzen ditu. Hiru piezak eliza edo katedral jakin baterako pentsatuak izan ziren, edo, bestela, egileei eragin zien inpaktuaren ondorioz sortu ziren.

Mendelssohn-ek *Drei Motetten op. 39* bilduma Erromako **Trinitá dei Monti eliza** bisitatu ondoren konposatu zuen, zerbitzu erlijiosoa ospatzen ari ziren klausurako lekaimeen kantua entzun ondoren biziki hunkiturik.
Poulenc-ek *Litanies à la Vierge Noire*, bere lehen lan sakroa, **Rocamadour-eko Notre Damen kaperan** sartzeak sortu zion zirrara bortitzaren ondorioz idatzi zuen.
Arnesen-ek, berriz, bere ***Magnificat***a, **Nidarosko katedralean** interpretatzeko pentsatu zuen, katedral gotiko borealena izaki Norvegiako monumentu historiko garrantzitsuenetakotzat jotzen den honek ikono kulturalaren estatusa lortu du.

Oscar Rodríguez Pastora organista gaztearen eta **Nerea González soprano** bizkaitarraren laguntzarekin, Vocalia Taldeak musika erlijiosoa bere espazioan kokatu eta proposamen musikal berri hau sortu du.

Vocalia Taldearen musika proposamen berriak, ARIMA SAKRAk, emakumeen koru eta organorako hiru obra erlijioso zoragarri lotzen ditu. Hiru piezak eliza edo katedral jakin baterako pentsatuak izan ziren, edo, bestela, egileei eragin zien inpaktuaren ondorioz sortu ziren.

Felix MENDELSSOHN

Hanburgo, 1809 – Leipzig, 1847

Konpositore, pianista eta orkestra-zuzendari alemaniarra izan zen, erromantizismoko musikaririk garrantzitsuenetako bat. Robert Schumannek honela definitu zuen: "XIX. mendeko Mozart, musikaririk gardenena, garai oso bateko kontraesanak ikusten eta uztartzen jakin duen lehena".

Protestantismora konbertitutako jatorri juduko bankari familia batean jaio zen. **Haur prodijioa** izan zen, eta laster erakutsi zuen musikarako ez ezik **marrazketarako, margolaritzarako eta literaturarako ere talentu handia zuela**. Haren dohainak familia-giroak akuilatu zituen; izan ere, giro hartan beti sustatu ziren haren arte-adierazpenak. Haren arreba, Fanny Mendelssohn ere talentu handiko konpositorea izan zen, lieder baliotsuen eta pianorako piezen egilea.

Bizitza laburra izan arren, Mendelssohn egile emankorra izan zen eta mota guztietako generoak landu zituen, tartean konposizio garrantzitsuak daude, zeinetan koruek hartzen duten parte, esaterako ***Paulus*** eta ***Elias*** Bibliako haren oratorio handiak. Palestrina, Victoria edo Schütz bezalako egileen zale amorratua, motete ugari idatzi zituen, lan sakroak a capella korurako edota organoak lagundutako korurako.

Orkestra-zuzendari gisa egindako lehenengoetako eta gogoratuenetako emanaldia 1829an izan zen eta, Bachen **San Mateoren Pasioa** interpretatu zuen Berlinen; kontzertu horretan berreskuratu zuen mende batez ahaztutako obra. Bach eta baita Mozart eta Haendel ere bere estiloaren zutabeak izan ziren.

Haren jatorri juduagatik, nazien erregimenak debekatu egin zuen eta Richard Wagnerrek gutxietsi. Horren ondorioz, ia mende bat iraun zuen haren musika baztertzeko joerak.

> *Erromantizismoko musikaririk garrantzitsuenetako bat izan zen.*

Drei Motetten fur Frauenchor und Orgel Op. 39

F. Mendelssohn

Emakumeen ahotsetarako eta organorako hiru motete sakroren bilduma hau 1830ean konposatu zuen. Lanak bakoitza bere aldetik idatzi ziren eta, ondoren, elkarrekin argitaratu ziren ziklo gisa 1838an.

Mendelssohnek pieza hauek Erroman sortu zituen **Trinità dei Monti kapera** bisitatu ondoren. Bertan, erabat hunkituta geratu zen saretaren atzean gordeta zeuden klausurako lekaimeen kantua entzutean. Honela idatzi zien gurasoei 1830eko abenduaren 20an:

"Moja frantses batzuek abesten dute han eta zoragarria da... Baina aipatu egin behar da, abeslariak ezin direla ikusi. Beraz, ezohiko erabaki bat hartu dut: zerbait konposatuko dut haien ahotsentzat, gogoan hartu ditudanak zehatz-mehatz...

1830ean konposatutako moteteak Veni Domine, Laudate pueri eta O beata et benedicta izan ziren. Argitaratzeko, ordea, azkenaren ordez Surrexit pastor bonus sartu zuen, landuena. Hartan mende batzuk lehenago Errenazimenduko eta Barrokoko maisu handiek erabilitako konposizio-teknikak maisuki nahasten ditu.

Veni Domine Abendualdiko hirugarren igandeko Bezperetarako erresponso bat da. Obra, koruaren hotsandiko dei batekin hasten da, jarraian atal azkarrago batean eraldatzen da, non ahotsek irrikaz oihukatzen duten Salbatzailearen etorrera. Tarteko sekzioak erritmo hirutarrarekin jarraitzen du, modu minorrean, intimoagoan eta baketsuagoan, eta, horren ondoren, berriro itzultzen da aurreko
sekzioa, modu maiorrean transkribatuta, deiaren distira eta intentsitatea hedatuz.

Laudate pueri Dominum Jainkoaren handitasuna eta behartsuei buruzko probidentzia goresteko bi salmok osatzen dute. Era berean, bi zatitan egituratuta dago, eta kontrapuntu errenazentistaren teknika, testuinguru harmoniko modernoago batekin elkartzen du, non ahotsen gurutzaketak eta ustekabeko emaitzak ugariak diren. Bigarren zatiak bakarlari hirukote baten eta koruaren arteko txandakatze gozo bat proposatzen du, non, modu antifonalean eta Italiako tradizio polikorala gogora ekarriz, bi sekzioek motibo melodiko berberen inguruan hitz egiten duten.

Surrexit Pastor Bonus Aste Santuaren ondorengo astearterako erresponso eta antifona batean oinarrituta dago. Jainkoa bere artaldea zaintzen duen artzaintzat aurkezten du. Formalki landuagoa eta konplexuagoa da, obra honek uztartzen ditu hasierako ataleko soli/tutti alternantzia eta bakarlari bikote bat, zeinak Vivaldi edo Pergolesi bezalako egileen italiar ahots idazkera barrokoa gogorarazten bait duen. Azken saio koralak, Haendelen oratorioetako saio koral handien dotorezia eta gardentasuna dakarkigu gogora.

Francis POULENC

Paris, 1899-1963

Familia aberats eta musikazale batean jaio zen. Bere amak, pianista amateurrak, pianoa jotzen irakatsi zion. **Konpositore gisa genero handi guztiak landu zituen: ganbera-musika, oratorioa, opera, baleteko musika eta orkestra-musika.**

Bere ibilbidean zehar, Mozart eta Saint-Saëns hartu zituen konposizio-eredutzat. Germaine Tailleferre, Arthur Honegger, Darius Milhaud, Georges Auric eta Louis Durey konpositoreekin batera, Poulenc *Les Six*-en parte izan zen, Erik Satie eta Jean Cocteaurekin lotutako konpositore gazte frantsesen talde batean. Poulenc-ek **Dadá mugimenduaren formak** besarkatu zituen, Parisko musika-aretoetarako egokitzat jotzen zena desafiatzen zuten doinuak sortuz.

Les Mamelles de Tiresias, Dialogues des Carmélites (XX. mendeko opera garrantzitsuenetako bat) eta *La Voix Humaine* (soprano ahotserako bakarrizketa dramatikoa) konposatu zituen.

Claude Rostand kritikariak, 1950ean argitaratutako Paris-Presseren artikulu batean, Poulenc erdi-heretiko, erdi-monje gisa deskribatu zuen eta etiketa hori aplikatu zitzaion handik aurrera. Poulencek esan zuen: "*nire lana profanoaren eta sakratuaren arteko justaposizioa da*".

Litanies à la Vierge Noire Notre Dame de Rocamadour

F. Poulenc

1936an idatziak, **Letania horiek izan ziren Poulencen lehen elizkizun-konposizioak, bere fede katolikoa berreskuratu ondoren**. Pierre-Octave Ferroud, bere lagun konpositorea, istripuz hil zela jakin eta gutxira **Rocamadourreko Ama Beltzaren santutegira** erromesaldia egin zuen, bertan erretiratu eta konposatzeko asmoarekin. Tenpluak zirrara izugarria eragin zion, eta horren ondorioz sortu zuen obra berezi hau. Poulencek letania zuen estanpa bat jaso zuen elizan, eta hura izan zen konposizio horretarako abiapuntua, autorearen beraren debozioaren adierazpen zintzoa.

Erromesaldiaren kontakizunak honela dio:
"Egun batzuk lehenago, nire lagunaren heriotza tragikoaren berri izan nuen... Gure gorputzaren hauskortasunaz gogoeta egiten ari nintzela, berriro erakarri ninduen espirituaren bizitzak. Rocamadourek nire haurtzaroko fedea itzuli zidan. Santutegi hark, zalantzarik gabe Frantziako zaharrenak, ... guztia zuen ni liluratzeko ... Rocamadouren egon eta gau hartan bertan hasi nuen nire Ama Birjina Beltzaranarentzako Letaniak emakumeen ahotserako eta organorako. Lan horretan, kapera horretan hain indartsu kolpatu ninduen "nekazarien debozio-giroa" gainditzen saiatu nintzen. .

Poulencek Letaniak konposatu zituen organoz lagundutako emakume edo haurren hiru ahotsetarako. Lana modala da, kantuaren estilokoa, kadentzia konbentzionalak saihestuz. Koruak estilo austeroan deklamatzen ditu letaniaren sekzioak, nota errepikatuak eta gradu bateratuak ugari dituzten kantu-lerroak erabiliz, eta organoaren akorde irekien bidez (cluster motakoak) lotzen ditu lanaren zatiak, zeintzuek, kasu batzuetan, bat-batean hausten baitute ahotsaren zatian lortutako horizontaltasuna. Rocamadourreko Ama Birjinaren otoitza hainbat estadiotan ematen da, hasi xuxurlarik intimoenetik garrasi dramatiko eta gorenera.

Kim André ARNESEN

Trondheim (Norvegia), 1980

Kororako musika egile garaikide interpretatuenetako bat da.

Haurtzarotik MTVren jarraitzailea eta *The Cure* taldearen zale handia izan zen. Piano klasikoa ikasi zuen, korista izan zen Nidaros Katedraleko Haurren Abesbatzan eta, ondoren, Trodheim Musika Kontserbatorioan bere prestakuntza sakondu zuen. Musika barroko, klasiko, garaikide eta herrikoiarekiko interes handia izanda ere, haren musika-ibilbideak bide asko har zitzakeen, baina musika korala bihurtu zuen bere pasiorik handiena.

Mundu mailan hauek dira haren lan ezagunenak eta interpretatuenak: ***Even When He is Silent, Cradle Hymn, Flight Song*** eta ***Cradle Hymn.*** Azken hori 2016an Etxe Zurian interpretatua izan zen, Barack Obama presidentearentzat.

2017an Abesbatza Nazional Luteranoak Holy Spirit Mass obra enkargatu zion eta Erreformaren 500. urteurrena ospatzeko estreinatu zuen Washingtongo Katedral Nazionalean. Europan, mezaren estreinaldia Erroman izan zen, 2018ko Musika eta Arte Sakratuaren Zikloan.

Magnificat

K. A. Arnesen

Egilearen hitzetan: *"Magnificat Bibliako pasarte bati eskainitako laudoriozko kantua da. Pasarte horretan, Gabriel aingeruak Maria bisitatuko du mezu honekin: zu, Maria, Jainkoaren semearen ama izango zara. Obra honetan, emakume gazte eta behartsu horrek mezu hori jasotzean sentituko zuena adierazten saiatu naiz: harridura, debozioa, esker ona, poza, apaltasuna, itxaropena eta errukia. Jainkoak bihotz bat du behartsuentzat, eta Jainkoak emakume behartsu bat aukeratu zuenean bere Semearen ama izan zedin, zerbait esaten du munduaren behetik goranzko ikuskerari buruz. Magnificat hau gaixoen eta pobreen aldeko otoitza da, borrokan ari direnentzako laguntza eta itxaropen kantua da."*

Obra, hasiera batean, emakumeen abesbatza, soprano bakarlari eta orkestrarako konposatu zen, Nidaros Cathedral Girls Choirek eta Anita Brevik zuzendariak enkargatua. Nidaros Katedralean bertan estreinatu zen 2010eko apirilaren 11n. **Zazpi zatitan egituratua, obra atsegina eta gardena da, non organoaren akonpainamenduak etengabeko euskarria ematen dien ahots lirikoei.**

Zenbaki batzuek berebiziko protagonismoa ematen diote ahots bakarlariari, intentsitate sakoneko hainbat pasarte interpretatuz. Pasarte horiek, kasu askotan, koruak ere garatzen ditu. A capella abestutako pasarteak, harmonikoki aurreratuagoak eta harrigarriagoak, obraren diskurtsoan txertatzen dira eta giro desberdinak proposatzen dituzte. Bosgarren zenbakia, Fecit Potentiam, obraren ardatz nagusia da, erritmo eta baikortasunez beterikoa. Motibo xume eta itsaskorra du, tonalitate desberdinetan interpretatua.

J.S.BACH
BEETHOVEN

VOCALIA TALDEA
Coro femenino

2000. urtean sortu zen Vocalia Taldea emakume abesbatza, egungo zuzendari Basilio Astulezen ekimenez. Vocalia Taldeak bidea ematen die Euskal Herriko zenbait emakume musikari profesionalen erronka eta kezkei. Taldearen asmoa da ahots-talde egonkor bat izatea, ekin diezaiokeena ohiko programazioetan nekez entzun daitekeen errepertorio bati, musika eta ahots aldetik exijentzia-maila handikoa delako.

Gaur egun, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa eta Errioxako bataz besteko 36 abeslarik osatzen dute Vocalia Taldea, den denak eskarmentu handikoak abesbatza musikaren alorrean. Programazio ausartak eta eszenaratze zainduak bitarte, taldea erreferente bihurtu da egungo musika koralaren munduan.

Vocalia Taldeak emakumezkoen korurako errepertorio zabala interpretatzen du, Euskal Herrikoa zein nazioartekoa, eta garai klasikoetatik hasi eta musika garaikideraino. Horrez gain, XX. eta XXI. mendeetako errepertorioen ikerlan sakona egiten du, eta musika-lan sortu berriekin aberasten du bere errepertorioa, abangoardiako konpositoreen ekarpenak lagun.

Hasieratik beretik, Vocalia Taldeak gonbidapen aunitz jaso izan ditu Espainiako eta Europako (Italia, Frantzia, Irlanda, Belgika...) abesbatza jaialdi ugaritan parte hartzeko. Kritikak txalotu egin du ibilbidean ezaugarri nagusi kalitatea, orijinaltasuna eta berrikuntza dituen taldearen jarduna. Taldea zenbait orkestra, bakarlari eta kultur erakunderekin batera aritu izan da sarritan, eta hogei saritik gora jaso izan ditu nazioarteko lehiaketetan (Tours, Arezzo, Tolosa, Maasmechelen edo Cork).

2019ko azaroan, Gustav Holsten musika eskainiz bost kontzertuko bira bat egin zuen Juanjo Mena zuzendariaren gidaritzapean, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eta abonamendu-programaren barruan.

Vocalia Taldeak elite profesionaleko erreferentziazko abesbatzen ziurtagiria jaso zuen 2020ko azaroan, Euskal Autonomia Erkidegoko abesbatzen Konfederazioak emana, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ezarritako irizpideak aplikatuz. Aintzatespen horri esker, Vocalia Taldeak bere entsegu sistema eta programazio artistikoarekin jarraitu ahal izan du murrizketen hilabete hauetan guztietan.

2020ko iraila eta abendua bitartean, Vocalia Taldeak Le Muse Veneziane programa barrokoa aurkeztu zuen, A. Vivaldi, N. Porpora eta B. Galuppiren musikarekin, Zumarraga, Zenarruza eta Ordiziako antzinako musikako zikloetan, Conductus Ensemblerekin batera, Andoni Sierraren gidaritzapean.

2021ean Madrilen, Azkoitian, Zornotzan, Akizen (Frantzia) eta Gasteizen eman ditu kontzertuak. Bere programarik berriena, There Is No Rose, Benjamin Britten, Johannes Brahms eta Xabier Sarasolaren musikarekin, Gasteizen, Beasainen, eta Bilboko Elkarte Filarmonikoan aurkeztu da. Kontzertu horietan, Vocalia Taldeak Urtats Elur suitea estreinatu du, Xabier Sarasola konpositoreak taldearentzat idatzi eta Benjamin Britten britainiar konpositore ospetsuaren A Ceremony of Carols Gabonetako musikaren suitearen ispilu gisa sortua.

Gaur egun, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa eta Errioxako bataz besteko 36 abeslarik osatzen dute Vocalia Taldea, den denak eskarmentu handikoak abesbatza musikaren alorrean.

Sopranos 1

Zuriñe Alvarez
Idoia García
Amaia Igartua
Katrin Iturralde
Jaurne Gaminde
Iratxe Garai
Adela Olaskoaga
Igone Abio
Isabel Sanz
Natalia Marín

Sopranos 2

Cristina Saldías
Esti Asurmendi
María Balda
Idoia Aguirre
Irma Rutkauskaite
Rakel Guridi
Mariaje Zornoza
Marijose Idiakez
Laida Otaduy

Altos 1

Nagore Mtz. Aguirre
Lorena Garro
Elena Madrazo
Marixa Fdz. Monge
Oihane Toledo
Amaia Guridi
Miren Martín
Tjaša Ostervuh
Olaia Arrieta
Saioa Goñi

Altos 2

Mertxe Fdz de Bastida
Larraitz Gorriño
Marian Napal
Esther Santamaría
Esther Santamaría
Audrone Almanaityte
Rose Rodriguez

Vocalia Taldeak hiru disko grabatu ditu, Neskatxena, María Mater eta Haizeak Dakar, azken hau Xabier Sarasola konpositorearen musikarekin.

Musika berriarekin
konprometituak

Vocalia Taldearen lehentasunetako bat taldearentzat bereziki idatzitako musika berria sortzeko konpromisoa da. Sortu zenetik, **Vocaliak euskal autoreen eta beste herrialde batzuetako autoreen lanak enkargatzen eta estreinatzen ditu** aldizka, eta sorkuntza-prozesuak eta konpositorearekiko zuzeneko komunikazioak ahalik eta gehien aberasten dute.

Musika-sorkuntzari laguntzeko proiektu honen emaitza **20 obra baino gehiagotan gauzatzen da, eta taldea harrotasunez betetzen du, emakumeen abesbatzentzako abesbatzen ondareari ekarpena egitea dakarrelako**. Hainbat partitura saritu dituzte Vocalia Taldeak estreinatu dituen jaialdietan. Besteak beste, enkarguak egin dizkie **Eva Ugalde, Xabier Sarasola, Javier Busto** eta **David Azurza euskal musikagileei. Albert Alcaraz, Josep Vila i Casañas, Ko Matsushita, John Pamintuan, Tone Bianca Dahl** eta **Dante Andreok** ere Vocalia Taldearentzako partitura berriak sortu dituzte.

Gure webgunean **www.vocaliataldea.com**-en lan horien guztien izenburuak eta egileak jasotzen dira

basilioastulez@hotmail.com

649 995 428

basilio.astulezduque

BASILIO ASTULEZ

Zuzendaria

Kantu koraleko irakaslea da Leioako Udal kontserbatorioan, eta bertako zenbait abesbatzen sortzailea: **2001ean Leioa Kantika Korala haur abesbatza, 2005ean La Kantoria nesken abesbatza gaztea, eta 2007an San Juan Abesbatza mistoa**. Koru eskola gazte honek 7 eta 25 urte bitarteko 150 abeslaritik gora biltzen ditu, eta sari ugari jaso izan ditu Espainia eta Europako lehiaketetan.

2000. urtean Vocalia Taldea izeneko emakumeen ganbera-abesbatza sortu zuen, zeinak ordutik honako ibilbidean 20 saritik irabazi duen nazioarteko abesbatza lehiaketa garrantzitsuenetan.

Talde horien buruan, **10 disko grabatu ditu, bai eta nazioarteko zenbait bira egin ere Europa eta Amerikan barrena**, zeinetan lehen mailako bakarlari, orkestra, zuzendari eta abesbatzekin lankidetzan aritu izan den.

2008an zuzendari onenaren sari berezia irabazi zuen Goriziako (Italia) 47. C. A. Seguizzi Nazioarteko Lehiaketan, Leioa Kantika Koralaren buruan egindako lanagatik.

2009an ere zuzendari onenaren sari berezia jaso zuen Tourseko (Frantzia) 38. Florilège Vocal lehiaketan, Vocalia Taldearen zuzendaritzagatik.

Gaur egun koru-zuzendaritzako irakasle lanetan dihardu hezkuntza-entitate, unibertsitate eta zenbait abesbatza federazioentzako. Sarritan deitzen dute Europan, Amerikan eta Asiako lehiaketetan epaimahai aritzeko, bai eta ikastaro eta mintegiak emateko ere.

2018tik aurrera, gainera, **koru zuzendaritzako irakaslea da Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian**.

2019ko azaroan Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak **Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren zuzendari artistiko posturako aukeratu zuen**, Euskal Herriko 40 abeslari biltzen dituen abesbatza.

OSCAR RODRÍGUEZ

Organo-jotzailea

Santanderko Jesús de Monasterio Kontserbatorioan klarinetea eta organoa ikasi ondoren, Kantabriako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaritzak ematen duen Konposizioko eta Organoko aparteko saria jaso zuen.

Ondoren, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene) sartu zen, Organo espezialitatean, eta Esteban Landart eta Karol Mossakovskiren eskolak jaso zituen. Gaur egun Orkestra eta Abesbatza Zuzendaritza ikasten ari da ikastegi berean, Arturo Tamayo eta Basilio Astulez irakasleekin.

Musikeneko Ikasleen Orkestra Barrokoa (OBA) sortu berri du. Horrez gain, Easo Abesbatzarekin, Donostiako Orfeoiarekin, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eta Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin ere kolaboratu du.

NEREA GONZÁLEZ

Sopranoa

Nerea Gonzalez zeharkako txirula ikasten hasi zen Leioako Udal Kontserbatorioan. Geroago, Leioa Kantika Korala haur abesbatzan eta San Juan Bautista Abesbatzan onartua izan zen eta bertatik bideratu zituen musika-ikasketak kantura.

Kantuko gradu profesionala hamazazpi urterekin hasi zuen Leioako Kontserbatorioan, eta Bilboko Juan Crisostomo de Arriaga Kontserbatorioan amaitu zuen. Aldi berean, Haur Hezkuntzako gradua egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun, kantu lirikoa ikasten ari da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, Bizkaiko Foru Aldundiaren beka batekin.

Bakarlari gisa hainbat lan egin ditu, besteak beste, Bilboko Musika Kontserbatorioarekin batera Musika-Músicaren hainbat ediziotan parte hartu du, edo antzinako musikako kontzertuetan, Andoni Sierraren zuzendaritzapean. Santanderreko Nazioarteko Jaialdian ere bakarlari gisa abestu du Kantabriako Gazte Orkestra Sinfonikoarekin batera, eta El Hoyo (2019) filmaren soinu-bandaren grabazioan parte hartu du. 2018an Euskadiko Musikari Gazteen Lehiaketako irabazlea izan zen kantu kategorian.

FITXA TEKNIKOA

Zerrenda

SSAA abesbatza, SSAA bakarlariak eta organoa, Basilio Astulezen zuzendaritzapean.

Iraupena

Kontzertuak 65 minutu inguruko iraupena du eta honela banatzen da:

F. Mendelssohn, DREI MOTETTEN op. 39 (20 min.)
F. Poulenc, LITANIES À LA VIERGE NOIRE (9 min.)
K. A. Arnesen, MAGNIFICAT (35 min.)

Espazioa eta Instrumentua

Kontzertuak musika mota honetarako toki egokia behar du (entzunaretoa, kapera edo kontzertu-aretoa). Agertoki edo aldare handia behar da korua (36 kantari), espazioaren zabaleraren arabera, bi edo hiru ilaratan jartzeko. Beraz, 8-10 metroko luzerako harmailak edo eskailerak ere beharko dira.

Elizak edo kontzertu-aretoak organoa badu, haren ezaugarrien, kontserbazio-egoeraren eta kokapenaren arabera erabiltzeko aukera baloratuko da. Musika mota hau interpretatzeko organo elektriko egokia alokatzea izango da beste aukera bat.

PROGRAMA

VOCALIA TALDEA, emakume abesbatza
BASILIO ASTULEZ, zuzendaria
OSCAR RODRÍGUEZ, organo-jotzailea
NEREA GONZÁLEZ, sopranoa

Felix Mendelssohn-Bartholdy
Alemania, 1809-1947

DREI MOTETTEN FÜR FRAUENCHOR UND ORGEL Op.39

I. Veni Domine
II. Laudate pueri
- Coro
- Terzetto*

III. Surrexit pastor bonus
- Coro
- Duetto*
- Solo* y coro

(*) Jaurne Gaminde, soprano 1
Idoia Aguirre, soprano 2
Saioa Goñi, alto 1
Larraitz Gorriño, alto 2

Francis Poulenc
Frantzia, 1899-1963

LITANIES À LA VIERGE NOIRE
Notre-Dame de Roc-Amadour

Kim André Arnesen
Norviega, 1980

MAGNIFICAT

I. Magnificat anima mea
II. Ecce enim
III. Quia fecit
IV. Et misericordia
V. Fecit potentiam
VI. Suscepit Israel
VII. Gloria Patri

VOCALIATALDEA

www.vocaliataldea.com

info@vocaliataldea.com

#CanaldeVocaliaTaldea

#Vocaliataldea

@Vocaliataldea